



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

EUSKO LEGEBILTZARRAREN IKT FUNTZIOA OPTIMIZATZEKO
AZTERKETA BAT EGITEKO BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIA



Baldintza Teknikoen Orria

Eusko Legebiltzarraren IKT Funtzioa Optimizatzeko Azterketa egitea

AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	3
2.	KONTRATUAREN XEDEA ETA ERAGINA.....	4
2.1	KONTRATUAREN XEDEA.....	4
2.2	AZTERKETAREN ERAGINA.....	5
3.	BURUTU BEHAR DIREN JARDUEREN DESKRIAPENA.....	6
3.1	0 FASEA. ANTOLAKUNTZA ETA AURKEZPENA.....	6
3.2	1. FASEA. GAUR EGUNGO IKT FUNTZIOAREN EGOERAREN AZTERKETA.....	6
3.3	2. FASEA. BESTE LEGEBILTZAR ERAKUNDE BATZUEN IKT FUNTZIOAREN BENCHMARKING-A LANTZEA.....	7
3.4	3. FASEA. EUSKO LEGEBILTZARRAREN IKT DIAGNOSTIKO GLOBALA EGITEA.....	8
3.5	4. FASEA. IKT FUNTZIOAREN EREDU OBJEKTIBOA LANTZEA.....	8
4.	EPEA ETA LAN-TALDEA.....	9
5.	INFORMAZIOAREKIN ETA DOKUMENTAZIOAREKIN LOTUTAKO BETEBEHARRAK.....	11
6.	MEMORIA TEKNIKOA.....	12



1. Sarrera

Gero eta interes handiagoa agertzen dute herri-administrazioek oro har, eta Eusko Legebiltzarrak, bereziki, modernizazioaren gainean; ildo horretan, *"barne-antolakuntza eta bere zerbitzura lan egiten duten langileen jarduteko moduak eta metodoak egokitzeko garrantzia azpimarratzen dute, bai eta gizarteak egiten dituen eskaerei erantzuteko beharra ere"*.

Esanak esan, Eusko Legebiltzarrak hainbat ekimen estrategiko garatu ditu bere funtzionamenduarekin eta bilakaerarekin lotuta, garatzen duen jarduerari bulkada berritzaile bat emateko; eta, xede horrekin, lanean dihardu betidanik garatu dituen funtzioak unean uneko egoera ekonomiko eta sozialaren arabera egokitzeko eta betetzen duen lana indartuko duten funtzionaltasun berriak garatzeko.

Ildo horretan, Eusko Legebiltzarrak bere Administrazioaren Plan Estrategiko bat lantzeko erabakia hartu zuen. Datozen urteei begira erakundeak garatu beharreko lanarentzako eta erakundea bera garatzeko bitarteko dinamiko eta ireki bat eskuratu zen horrela. Aipatutako plan horretan, erakunde-mailan hartu beharreko hobekuntza-neurriak ezartzen ziren, Eusko Legebiltzarrak egiten duen jardueraren eta euskal gizarteari egiten zaion eskaintzaren kalitatea areagotzeko helburuarekin.

Etengabeko hobekuntza eta bikaintasuna lortzera bidean, duela gutxi argitaratu dira Legebiltzarreko Administrazio Zerbitzuen Gutunak. Eskaintzen diren zerbitzuak, zerbitzu horiekiko hartzen diren konpromisoak eta behar den bezala betetzen direla neurtzeko adierazleak ezagutzera eman nahi dira Gutun horien bitartez.

Gaur egun, eta aurretik aipatutakoa kontuan hartuta, Eusko Legebiltzarrak IKT Funtzioa Optimizatzeko (eta birbanatzeko) Azterketa bat egiteko proposatu du, erakundearen barruan, bere inbertsioak Euskadik bizi duen errealitate berrira egokitzeko eta IKTen esparruan abangoardian egoten jarraitzeko.

Horrenbestez, Baldintza Partikularren Orri honen helburua da, aipatutako azterketa egiteko lehiaketan parte hartzen duten alde guztiek bete beharreko baldintza teknikoak definitzea.

2. Kontratuaren xedea eta eragina

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia erabiltzeak dakartzan abantailak aitortzea lortu nahi da. Abantaila garrantzitsuak lortzen dituzte zerbitzuak zuzenean erabiltzen dituzten pertsonak (legebiltzarkideak, legebiltzar-taldeak, funtzionarioak, eta abar) eta zeharkako erabiltzaileak (herritarrek eta beste administrazio batzuk), informazioa eta mota orotako prozeduren izapidetze-lanak hobetzen direlako. Hori guztia ikusita, Eusko Legebiltzarrak **aurrerapauso bat gehiago eman du bikaintasun publikoa lortzera bidean eta administrazio-mailako IKTen bikaintasunaren aitzin-aitzinean joateko.**

Beraz, ondorengo lerroetan irakur daiteke xedearen eta eraginaren deskribapena:

2.1 Kontratuaren xedea

Baldintza Tekniko Partikularren Orri honen helburua da Eusko Legebiltzarraren **IKT Funtzioa Optimizatzeko Azterketa** lantzeko lehiaketan parte hartzen duten alde guztiek bete beharreko baldintza teknikoak definitzea.

Zentzu horretan, Eusko Legebiltzarrak IKT Funtzioa Optimizatzeko Plan bat egitea aurreikusi du, honako helburu partikular hauek betetzeko:

- **Sektore publiko nazionalaren aitzin-aitzinean joaten jarraitzea.** Xede horrekin, **proiektu teknologiko** baten ezarpena egingo da, erakundearen barruko kudeaketa-prozesuak bakuntzeko eta eraginkorragoak izateko balio erantsia sortzen duten erabiltzaileentzako zerbitzuak eskaintzean.
- **Erakundearen eta barruko lan-metodoen modernizazio integrala** egitea, bai eta beste administrazio eta erakundeekin zein herritarrekin erlazionatzeko moduena ere, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia eskaintzen dituzten aukerak baliatuz. Betiere, erabiltzailea ardatz duen ikuspegi batetik, hartara, erabiltzaileentzako balioa sortuko duten zerbitzuak eskaintzeko (legebiltzarkideak, legebiltzar-taldeak zerbitzura lan egiten duten langileak, funtzionarioak edo herritarrek), eta administrazio-unitate guztien funtzioak gardentasunez erakusteko.
- **Barruko erabiltzaileei** (legebiltzarkideak, funtzionarioak, taldeetako langileak eta bertaratzen diren pertsonak) **zerbitzu personalizatuak eskaintzeko** beharrezkoak diren baliabideak hornitzea Eusko Legebiltzarrari. Zerbitzu eta informazio garrantzitsuagoak eskaintzen jarraitzea, modu azkarrean eta errentagarrian.
- **Eusko Legebiltzarra modu garden eta eskuragarri batean aurkeztea herritarrei.** Garatzen diren lanak eta eztabaida-foroetan edo iradokizun-postontzietan egiten den parte-hartze aktiboa erakutsiko zaie herritarrei, besteak beste, eta web-inguruneekin lotuta nazioartean onartutako erabilgarritasun eta iredagarritasunaren estandarrak beteko dira.

2.2 Azterketaren eragina

Ondoren aipatutako esparruak barne hartuko ditu azterketak:

- **Gaur egungo egoeraren deskribapen zehatza**, erakundearen barrukoa zein kanpokoa. Inbentario zehatz bat eta azterketa xehatu bat egingo dira garatutako aplikazioak, komunikazio-tresnak, sareko azpiegitura eta sistema zentrala barne hartuz, eta gauza bera egingo da egin behar izan den inbertsioa ezagutzeko.
- **Diagnostiko orokorra**. Ingurunea eta gaur egungo egoera aztertuko dira. Horrela, alde batetik modernizazio teknologikoaren ildotik Legebiltzarreko Administrazioaren **etorkizuneko eredia, funtzioa eta helburu estrategikoak** definituko dira, eta, bestetik, herritarrek teknologia berrien esparruan gehien eskatzen dituzten zerbitzuak eta erabiltzaile potentzialak identifikatuko dira.
- **Konparazio-benchmark** bat egitea beste Parlamentu batzuekin, IKT inbertsioaren maila, inbertsio horren ROI, eta abar ikusteko.
- **Eusko Legebiltzarraren ibilbide-orria zehaztea**, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak aplikatuz kalitatezko zerbitzuak eskaintzen lider izaten jarraitzeko.
- Burutzeko proposatzen diren **IKT jarduera guztietarako printzipio komunak** definitzea eta aldaketak ezartzeko lan-metodoak eta -prozedurak definitzea.
- Garatzeko **berariazko IKT proiektuak zehaztea eta definitzea** (arlokoak edo zeharkakoak), eta horiek ezartzeko ebaluazio-sistemak zehaztea eta definitzea.
- **Lanerako Plana definitzea**. Plan hori jarraituko da proiektuak behar den bezala koordinatzeko eta lehenesteko eta modu egokian eta denbora-programazio baten arabera ezarriko direla ziurtatzeko.

3. Burutu behar diren jardueren deskribapena

Burutuko diren jardueren deskribapena Azterketa osatzen duten faseen arabera bereizita ikus daiteke jarraian:

3.1 0 fasea. Antolakuntza eta aurkezpena

Honako jarduera hauek burutuko dira fase honetan:

- Informazio garrantzitsua identifikatzea.
- Lan-esparrua definitzea.
- Parte-hartzaileak identifikatzea.
- Elkarrizketen plana ezartzea.
- Lan-plangintza zehatza erabakitzea.

3.2 1. fasea. Gaur egungo IKT funtzioaren egoeraren azterketa

Fase honen helburua da prozesuen euskarri diren informatika- eta komunikazio-sistemak aztertzea, hartara, IKT funtzioaren puntu kritikoak eta hobetzeko aukerak antzemateko.

Honako jarduera hauek burutuko dira fase honetan:

- **Informazio-sistemen azterketa.** Unitate bakoitzak Eusko Legebiltzarraren prozesu nagusietako funtzioak eta informazio-beharrak aztertuko ditu (jada identifikatuta daude Legebiltzarreko Administrazioaren Prozesuen Eskuliburuan), eskakizun orokorrak definitu ahal izateko. Kasu bakoitzean burutu beharreko funtzioak, tratatutako informazioa, beste prozesu batzuekiko erlazioa eta behar den teknologia berezia definituko dira. Honakoak burutuko diren jarduerak:
 - o Erakundearen funtzioak eta prozesuak identifikatzea, Informazio Sistemen ikuspegitik:
 - Erakundeko arlo eta zerbitzu bakoitzaren barruan prozesu eta funtzio nagusiak aztertuko dira. Informazio Sistemak gaur egun duten funtzionamenduaren arabera aurkeztuko dira. Gaur egun eskuz egiten diren ekintzak baina Informazio Sistema berrien bitartez automatikoki egingo liratekeenak hartuko dira kontuan. Aipatutako alor bakoitzaren kasuan honako alderdi hauek aztertuko dira:
 - Gaur egungo prozesuak. Gaur egungo prozesuak, jardura eskuzkoak eta automatikoak eta erakundeko beste hainbat prozesurekin dituzten erlazioak identifikatzea.
 - Informazio-egiturak: Informazio-entitate nagusiak (aplikazioak eta sistemak) eta informazio-egitura nagusiak. Tokiko eta korporazioko datu-base automatizatuak eta eskuzkoak barne hartuko dira.
 - Egitura horien mantentzea: urteko kostuak, langileak, eta abar.

- Informazio Beharrak identifikatzea. Behin prozesuak aztertu eta gero, azterketa horrek erakutsitako informazio-beharrak aztertuko dira, bai eta kudeaketa-unitate desberdinetako arduradunekin egindako lan-bilkurak ere.
 - Informazio-beharrak. Informazio-behar nagusiak identifikatzea, antzemandako eskaeretatik eta gaur egungo prozesuen azterketatik abiatuta.
 - Funtzio berriak. Orain arte garatu ez diren baina gaur egun prozesuek duten egoerari eta antolakuntzako beste aldaketa batzuei esker definitu daitezkeen funtzio berriak identifikatzea.
- Gaur egungo Informazio Sistemak eta Teknologiak identifikatzea. Modulu honetan Informazio Sistemek eta Teknologiek gaur egun duten egoera aztertuko da eta honako alderdi hauek barne hartuko dira:
 - Azpiegitura Teknologikoak: Hardware-osagaiak eta - ekipamendua, komunikazioak, oinarriko software-a, middleware-aren ezaugarriak, kopurua eta antzintasuna, gaur egungo euskarriak, sareen azpiegitura eta sistema zentrala, eta abar.
 - Software-aplikazioa: Garatutako aplikazioen eta informazio-azpisistemen software-aren ezaugarriak: bertsioak, ustiapen- eta -garapen ingurunea, software-aren ezaugarri garrantzitsuak, komunikazio-bitartekoak, inbertsio-bolumena, eta abar.

3.3 2. fasea. Beste Legebiltzar Erakunde batzuen IKT Funtzioaren Benchmarking-a lantzea

Fase honen helburua da **gaur egungo joera nagusiak aztertzea herri-administrazioen esparruan oro har, eta Legebiltzarreko Administrazioen esparruan bereziki**. IKTak kudeatzeko ereduak hartuko dira kontuan azterketa horretan, eta jardunbide interesgarriak identifikatzea du helburutzat, hartara, erakundeak dituen helburu estrategikoekin bat egin eta Legebiltzarrarentzat IKT sistemen eredu bat diseinatzen.

Honako jarduera hauek burutuko dira fase honetan:

- **Administrazioak IKT kudeaketa-ereduan erakutsitako joera nagusien deskribapena** egitea eta proiektuaren esparruan jardunbide onenak identifikatzea, informazio-iturriak aztertuz eta beste erakunde publiko batzuk izandako esperientzien kasu praktikoak aztertuz.
- **Beste parlamentu batzuen benchmarking-a**, erakunde publiko desberdinen azterketa oinarrian hartuta. European zein Europatik kanpo dauden eta antzeko antolakuntza- eta funtzio-osaera edo orientazio estrategikoa duten parlamentuak aukeratuko dira. Informazio-sistemen eta azpiegitura teknologikoen kudeaketan jardunbide onenak identifikatuko dira.

Azterketari ekiteko, ereduzko eskema bat identifikatuko da. Eskema horren arabera egingo da alderatzea eta berari esker errazagoa izango da hobetzeko arloak bereiztea:

kudeaketa-filosofiak, azpiegitura teknologikoen eta komunikazioen proiektuak, IKT inbertsio-maila, eta abar.

3.4 3. fasea. Eusko Legebiltzarraren IKT Diagnostiko Globala egitea

Fase honen helburua da aurreko fasean aztertutako puntu kritikoak edo hobe daitezkeen arloak identifikatzea. Puntu kritikoak gainditzeko konponbide egokienak proposatuko dira eta bakoitzak dituen abantailen eta desabantailen arabera eta bideragarritasunaren arabera baloratuko dira.

Bereziki baloratuko da eredu teknologiko berria definitzeko abiapuntua, Eredu Objektiboan barne hartutakoa, eta eredu berria ezartzeko jarduerak eta proiektuak lantzea. Honako jarduera hauek burutuko dira fase honetan:

- **AMIA azterketa egitea eta hobetzeko arloak eta aukerak identifikatzea.** Alderdi sendoak eta ahulak, mehatxuak eta hobetzeko aukerak identifikatuko dira, Informazio Sistemen ikuspegitik.
- **Lehentasunezko jarduera estrategikoak identifikatzea eta aukerako eszenategiak baloratzea.** Oinarrian hartuko dira antzemandako hobetzeko aukerak, alderdi sendoak indartuz eta inguruneak antolakuntza, prozedura, zerbitzu eta teknologien mailan eskaintzen dituen aukerak baliatuz.
- Deskribatutako jarduerak burutzeko **beharrezkoa den inbertsioa identifikatzea.**

3.5 4. fasea. IKT Funtzioaren Eredu Objektiboa lantzea

Fase honen helburua da Eusko Legebiltzarrarentzat bere sistema eta azpiegitura teknologietarako ibilbide-orri bat osatzea. Honako jarduera hauek burutuko dira fase honetan:

- GAP azterketa: Gaur egungo egoeraren eta definitutako eredu objektiboaren arteko desberdintasunak identifikatzea, gauzatzeko ekintza-multzo bat osatzeko.
- Martxan jartzeko errazak diren eta emaitza bikainak lortzeko balio duten neurriak identifikatzea (quick-wins).
- Informazio Sistemaren Eredu Objektiboa ezartzea; inbertsio ekonomikoa, mantentzea, beharrak eta bilakaera-plangintza identifikatuko dira.
- Burutuko den Ekintza Plana definitzea eta kasuan kasu hobekuntzak identifikatzea.
- Informazio-aplikazio eta -sistemen Ezagupenak Kudeatzeko Eredu bat definitzea.
- Aldaketa kudeatzeko estrategia definitzea eta komunikazio- eta prestakuntza-planak lantzea.

Aipatutako faseetako jarduera guztietan lizitatzailleak jarduera bakoitza garatzeko metodologiaren deskribapena egin beharko du. Horrez gain, bertan sortuko diren entregagaiak zehaztuko ditu.

4. Epea eta lan-taldea

Lanak gauzatzeko epea 3 hilabetekoa da. Horretarako, 4 lagunek osatutako talde bat behar da, dedikazio osoarekin. Ondoren adierazitako profilak eskatuko dira:

- **Proiektuburu:** Goi-mailako tituluduna izango da, teknologia informatikoetan (TI) eta telekomunikazio-teknologiatan berriazko prestakuntzarekin. Horrez gain, gutxienez 5 urteko esperientzia edukiko du IKT proiektuburu gisa.
- **Aholkulari seniorra:** Goi-mailako tituluduna izango da, teknologia informatikoetan (TI) eta telekomunikazio-teknologiatan berriazko prestakuntzarekin. Horrez gain, gutxienez 2 urteko esperientzia edukiko du IKT aholkulari senior gisa.
- **Prozesuen aholkularia:** Goi-mailako tituluduna izango da, prozesu eta prozeduretan eta antolakuntza-aholkularitzan berriazko prestakuntzarekin. Horrez gain, gutxienez 2 urteko esperientzia edukiko du prozesuen aholkulari gisa.
- **IKT aholkularia:** Goi-mailako tituluduna izango da, teknologia informatikoetan (TI) eta telekomunikazio-teknologiatan berriazko prestakuntzarekin. Horrez gain, gutxienez 2 urteko esperientzia edukiko du aholkulari gisa.

C gutun-azalean, "DOKUMENTAZIO TEKNIKOA", taldeko kide bakoitzaren Curriculum Vitae-ak barne hartuko dira. Bertan adieraziko da baldintza teknikoen orri honetan eskatzen den esperientzia; halaber, esparru funtzionalean antzeko proiektuetan izandako esperientzia adieraziko da.

Kontratazio Organoak, aurkeztutako eskaintzen kaudimen teknikoak kalifikatzeko fasean, langile guztiei edo batzuei elkarrizketa pertsonalak edo kualifikazio teknikoko probak egiteko ahalmena erreserbatuta du, aurkeztu diren datuak egiaztatzeko helburuarekin. Errealitatea desitxuratzen duten datuak daudela egiaztatzen bada, eskaintza lizitazio-prozesutik kanpo geratuko da.

Eskaintako langileen ezagupen teknikoen maila gezurrezkoa bada –eskaintzan barne hartuko balioak eta zinez egiaztatu diren ezagupen errealak alderatzean ikusiko da-, bertan behera geratuko da esleipena, eta konpainiak bere gain hartuko ditu eragindako lege-gastuak eta kalteak.

Kontratazio Organoari dagokio lanak gainbegiratzea eta zuzentzea, egokitzen diren aldaketak proposatzea edo, hala badagokio, proposamena bertan behera uztea, arrazoi justifikaturik egonez gero. Kontratazio Organoak Proiektuburu bat izendatuko du Legebiltzarreko administrazioko langileen artetik eta, Orri honen arabera, honako funtzio hauek beteko ditu:

- Eskatzen eta eskaintzen diren lanak betetzen direla zaintzea.

Baldintza Teknikoen Orria
<i>Eusko Legebiltzarraren IKT Funtzioa Optimizatzeko Azterketa egitea</i>

- Ekintza guztiak eskaintako bitarteko pertsonalekin koordinatzea eta laguntzea, proiektua behar den bezala garatzeko.

Esleipendunari dagokio azterketa egingo duten bitarteko pertsonalak abian jartzea, zuzentzea eta zuzenean koordinatzea. Xede horretarako, esleipendunak proiektuburu bat izendatuko du. Orri honen arabera, honako funtzio hauek beteko ditu:

- Zerbitzua garatzen duten bitarteko pertsonalak zuzentzea, behar den bezala gauzatzeko aginduak eta jarraibidea emanaz.
- Azterketa egiteaz arduratzen diren bitarteko pertsonalak eta organo kontratatzailea harremanetan jartzeko funtzioak betetzea.

Lan-taldearen arduradunak aldiro emango dio informazio Kontratazio Organoari burutu diren lanen egoerari buruz.

5. Informazioarekin eta dokumentazioarekin lotutako betebeharrak

Kontratuaren xede diren lanak betetzean, esleipendunak konpromisoa hartzen du Kontratazio Organoak izendatutako pertsoneri eskatzen duten informazioa eta dokumentazioa emateko une oro, hartara, lanak garatzen diren testuingurua ondo ezagutzeko eta sor daitezkeen arazoak eta horiek konpontzeko erabilgarri dauden teknologiak, metodoak eta bitartekoak ezagutzeko.

Kontratuaren xede diren zereginen artean, esleipendunak egindako lanen dokumentazioa lantzeko konpromisoa hartzen du, kasu bakoitzean Kontratazio Organoaren Proiektu Zuzendariak ezarritako irizpideen arabera. Kontratua gauzatzean sortutako dokumentazioa Eusko Legebiltzarraren jabetzakoa izango da eta kontratistak ezingo du dokumentazio hori gorde, kopiarik egin edo hirugarreni eman, Eusko Legebiltzarraren baimenik gabe.

Kontratuaren xedearekin erlazionatuta sortzen den dokumentazio guztia gaztelaniaz eta euskaraz aurkeztuko da, informazioa islatzeko aukeratzen den euskarria edo formatua edozein delarik.

Azterketa egin bitartean sortutako dokumentazio guztia barne hartzen duen kopia bat emango dio esleipendunak Eusko Legebiltzarrari, euskarri informatikoan (CDa edo DVDa), kostu gehigarririk gabe.

6. Memoria teknikoa

Lizitatzailleak agiri bidez justifikatuko du kontratu hau gauzatzeko proposatzen duen soluzioa. Horretarako, eskaintzaren C gutun-azalean, "DOKUMENTAZIO TEKNIKOA", memoria tekniko bat barne hartuko da eta honako alderdi hauek adieraziko dira bertan, gutxienez:

- Aurkibidea
- Ezaugarri orokorrak:
 - Eskaintzaren identifikazioa
 - Orriko klausulen onarpen orokorra
 - Enpresaren datuak: izena, antolakuntza-egitura, IKT merkatuan esperientzia-urteak, azken 2 urteetako hazkundera, eta abar.
- Azterlana egiteko ikuspegia:
 - Proiektuaren faseen deskribapen zehatza
 - Entregagarrien deskribapena
 - Legebiltzar-erakundearen proposamena Benchmark-a egiteko
 - Eta abar.
- Burutuko diren jardueren plangintza zehatza
- Antzeko proiektuetan izandako esperientziak
- Ekarrirako hobekuntzak
- Lan-taldea. Proposatzen diren langileen CVak zehaztuko dira eta berariaz aipatuko da antzeko proiektu/azterketatan izandako esperientzia
- Lizitatzailleak adierazi nahi duen beste edozein alderdi.

Eskaintzak paperezko formatuan aurkeztuko dira eta 2 kopia CD/DVDan (MS Office edo PDF Acrobat Reader).